

IRAGARKIA

116. ALDIZKARIA - 2024ko ekainaren 6a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK ANTSOAIN

Aldaketa, 13. ordenantzan (Uda-neguetako igerilekuek, gune hidrotermalak eta instalazio osagarriek osatzen dituzten kirol instalazioak erabiltzeko eta kirol abonuko jardueretarako prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala). Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2024ko otsailaren 28an egin ohiko osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen aldaketa egitea ordenantza fiskal honetan: ordenantza, uda-neguetako igerilekuek, gune hidrotermalak eta instalazio osagarriek osatzen dituzten kirol instalazioak erabiltzeko eta kirol abonuko jardueretarako prezio publikoak arautzen dituen.

Espedientea jendaurrean egon zen 30 egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita (2024ko 59. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 19koa), interes legitimoa dutenek azter zezaten, eta egoki jotako erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez zitzaten, jarritako epearen barnean; hori guztia, bat etorritz uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

Ez da erreklamazio, kexa edo oharrak egin, eta, beraz, bidezkoa da argitaratzea Uda-neguetako igerilekuek, gune hidrotermalak eta instalazio osagarriek osatzen dituzten kirol instalazioak erabiltzeko eta kirol abonuko jardueretarako prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

Antsoainen, 2024ko maiatzaren 9an.–Alkatea, Marta Díez Napal.

**ORDENANTZA, UDA-NEGUETAKO IGERILEKUEK, GUNE HIDROTERMALAK ETA
INSTALAZIO OSAGARRIEK OSATZEN DITUZTEN KIROL INSTALAZIOAK
ERABILTZEKO ETA KIROL ABONUKO JARDUERETARAKO PREZIO PUBLIKOAK
ARAUTZEN DITUENA**

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da jarraikiz 2/1995 Foru Legeari, hain zuzen ere, lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalari (2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei

buruzkoa), eta baliatuz haren 28. artikuluko baimena.

Ordaindu beharra

2. artikulua. Ordainarazpen hauek ordaintzera beharturik daude igerilekuetako erabiltzaileak, gunee hidrotermalekoak, instalazio osagarrietakoak eta kirol abonuan izena emandakoak.

Ordaindu beharra

3. artikulua. Ordaindu beharra sortzen da sarrera edo udal baimena eskuratzen denean, sartzeko igerilekuetan, gunee hidrotermalean eta instalazio osagarrietan, baita kirol abonuaren jardueretan izena ematean ere.

Tarifak

4. artikulua. Ordenantza honen tarifen eranskinean ageri dira aplikatu beharreko tarifak.

Kudeaketa arauak

5. artikulua. Instalazioetan sartzeko unean eginen dira egun bateko balioa duten txartelak edo sarrerak eta hilabeteko abonua. Horretarako, arau berezi gisa, instalazioetako diru-bilketa zerbitzuei ordaindu beharko zaie prezioa. Haiek eginen dituzte txartelak, eta ordainketaren frogagiri izanen dira.

6. artikulua. Instalazioak abonu bitartez erabili nahi dituztenek –abonu hori izan denbora mugarik gabea nahiz denboraldikoa– Udalak finkatzen duen moduan eta baldintzetan eskuratuko dute.

7. artikulua. Igerileku-denboraldiaren hasiera eta bukaera eta, orobat, kirol instalazio bakoitza ireki eta ixteko ordutegiak urtero onetsiko ditu Tokiko Gobernu Batzarrak, dagokion batzordeak txostena eman ondoren.

Igerileku estalia eta gunee hidrotermala ezin dira itxita eduki arrazoi teknikoengatik baino, hau da, berriazko mantentze-lanetarako edo matxurak konpontzeko, horretarako beharrezkoa bada instalazioa gelditzea, ezinbestekoa den denboran; horrelakoetan ez zaie kalte-ordainik emanen erabiltzaileei, baldin eta arrazoitutako itxiera ez bada luzeagoa urtean ondoz ondoko 50 egun baino.

Honako hauek izanen dira kirol instalazioak irekitzeko eta ixteko 2024ko egutegia eta ordutegia:

Igerileku estalia - udako igerilekuak.

–Instalazioak itxita:

- Urtarrilaren 1ean eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n.

–Igerileku estalia itxita:

- Irailaren 9tik 22ra.

–Neguko ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:30era eta 15:30etik 22:00etara.
- Larunbatetan, 9:30etik 22:00etara.
- Igande eta jaiegunetan, 9:30etik 14:30era.

(Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

–Udako kanpainaren data:

- Ekainaren 7tik irailaren 8ra.

–Udako ordutegia:

- Egunero, 10:00etatik 21:30era.

(Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

–Aste Santua:

- Martxoaren 28an, 29an, 30ean eta 31n eta apirilaren 1ean, 9:30etik 14:30era. (Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

–Antsoaingo festak:

- Irailaren 13an, 9:30etik 14:30era.

(Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

–Urtarrilaren 6an, maiatzaren 1ean, urriaren 12an, azaroaren 1ean, eta abenduaren 3an eta 6an:

- 9:30etik 14:30era.

(Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

Sarbidea IDAKI kirol zentrora eta muskulazio gelara.

–Instalazioak itxita:

- Urtarrilaren 1ean eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n.

–Ordutegia:

- Astelehenetik larunbatera, 7:30etik 22:00etara.
- Igande eta jaiegunetan, 8:00etatik 14:30era.

–Antsoaingo festak:

- Irailaren 13an, 8:00etatik 14:30era.

–Aste Santua:

- Martxoaren 28an, 29an, 30ean eta 31n eta apirilaren 1ean, 8:00etatik 14:30era.

–Urtarrilaren 6an, maiatzaren 1ean, uztailaren 25ean, abuztuaren 15ean, urriaren 12an, azaroaren 1ean, eta abenduaren 3an eta 6an:

- 8:00etatik 14:30era.

IDAKI gune hidrotermala.

–Instalazioak itxita:

- Urtarrilaren 1ean eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n.

–Gune hidrotermalaren itxiera, geldialdi teknikoa:

- Uztailaren 1etik 31ra eta otsailaren 12tik 18ra.

–Ordutegia:

- Astelehenetik larunbatera, 9:30etik 22:00etara.
- Igande eta jaiegunetan, 9:30etik 14:30era.

(Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

–Antsoaingo festak:

- Irailaren 13an, 9:30etik 14:30era.

(Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

–Aste Santua:

- Martxoaren 28an, 29an, 30ean eta 31n eta apirilaren 1ean, 9:30etik 14:30era.

(Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

–Urtarrilaren 6an, maiatzaren 1ean, abuztuaren 15ean, urriaren 12an, azaroaren 1ean, eta abenduaren 3an eta 6an:

- 9:30etik 14:30era.

(Igeri-ontziak itxiko dira instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago).

Oharra: Egoera bereziak direla-eta, Udalak eskubidea izanen du instalazioak irekitzeko eta itzeko epeak aldatzeko, eta jendearendako irekia egoteko ordutegiak aldatzeko. Tokiko Gobernu Batzarra izanen da egutegiaren eta ordutegien aldaketa bereziak egiteko organo eskuduna.

Ordu-tarteak eta sarbideen kontrola

Kirol instalazioen erabilera optimizatzeko, edo indarrean dagoen araudia betetzeko, gerta daiteke kirol instalazioek izatea erabiltzeko ordu tarteak, eta edukierak kontrolatzea. Erreserba-prozedura behar besteko denboraz jakinaraziko zaie erabiltzaileei.

INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK

8. artikulua. Instalazioen barnean diren bitartean, erabiltzaileek aldean eraman beharko dituzte txartelak –sarrera erosi izanaren frogagiria edo sartzeko txartela, indarrekoa– eta arduradunei erakutsi, eskatzen badiete, erakusteari uko eginez gero bidezkoa izanen baita kanporatzea.

9. artikulua. Instalazioetan sartzen diren guztiek men egin beharko diete ikusgai dauden funtzionamendu araei. Beraz, instalazioen erabiltzaileek une oro bete beharko dituzte portaera arauak eta instalazioa erabiltzekoak, zeinak ikusgai baitaude.

10. artikulua. Instalazioetan sartzeko, abonatuak nahitaez eduki beharko ditu ordainduta kuotak, tarifen eranskinean zehazten direnak.

Erabiltzaileek, baja eskatu gabe, hiru ordainagiri ordaindu ez badituzte, Udalak baja emanen die, ofizioz, instalazioen erabileratik. Horrek ez du kenduko bajaren eguna arte sortu diren kuotak ordaintzeko beharra.

11. artikulua.

a) Indarreko araudia, kirol abonuari buruz sor litezkeen aldaketak barne, instalazioetako iragarki-taulan egonen da ikusgai, bai eta Udalaren eta IDAKI kirol zentroaren web-orrietan ere.

b) Kirol abonuaeren erreserba-programa erabiltzeko, beharrezkoa da programa horretan izena emanda egotea. Izen-ematea izapidetuko da kirol instalazioetako harreragunean edo horretarako gaitutako web-orrian.

c) Izen-emateen eta bajeen izapidetzea eta prozedura, bai eta zerbitzu hau erabiltzeko baldintzak ere, ikusgai egonen dira instalazioetako iragarki-taulan eta horretarako gaitutako web-orrian.

Arau-haustek eta zehapenak

12. artikulua. Arau-haustek ekar ditzakete falta arinak, astunak eta oso astunak.

13. artikulua. Arau-hauste arinak.

–Hona hemen arau-hauste arinak:

1.–Esparruko instalazioak behar bezala ez erabiltzea.

2.–Behar bezalako oinetakoak ez erabiltzea bai berdeguneetan, bai igeri-ontzien esparruan.

3.–Jatea edo edatea horretarako eremuetatik kanpora.

4.–Ez erabiltzea paperontziak, hautsontziak eta instalazioa garbi edukitzeko gainerako elementuak.

5.–Esparruan sartzea bizikletak, trizikloak, patinak, etab.

6.–Igerilekuen instalazioetan sartzea 8 urtetik beherakoak, heldu baten laguntzarik gabe. Helduak adingabea babestu beharko du eta portaera egokia duela begiratu, instalazioetan dagoen bitartean. Etengabe zainduko du; bereziki, igeri-ontzietan dagoen bitartean.

7.–Gune hidrotermalaren instalazioetan sartzea 14 urtetik beherakoak, heldu baten laguntzarik gabe. Helduak adingabea babestuko beharko du eta portaera egokia duela begiratu, instalazioetan dagoen bitartean, eta etengabe zainduko du.

8.–Igerilekuan edo eremu hezeetan dutxatu gabe sartzea.

9.–Uretan erabiltzea uretako gauzaki edo bestelakoak, besteei traba egiten ahal dietenak, edo arriskuan jar dezaketenak norberaren nahiz besteen osotasun fisikoa. Orobat, jostatzea jaurtitzen diren gauzakiakin edo besteei traba egiten dieten bestelako gauzakiakin.

10.–Bainatzeko txanorik gabe bainatzea neguko igerilekuan eta gune hidrotermalean.

- 11.–Helduak txipli-txaplako igerilekuan egotea beharrik gabe.
- 12.–Txipli-txaplako igerilekuan sartzea bainujantzirik edo pixoihalik gabe.
- 13.–Txipli-txaplako igerilekuaren barnean jatea edo jatera ematea.
- 14.–Erretzea gun e itxietan, igeri-ontzietan, hondartzetan eta hurrendako jostaketa eremuetan.
- 15.–Aulkiak eta mahaiak okupatzea gainean gauzak ezarriz, berehalakoan erabiltzeko asmorik gabe.
- 16.–Aire zabaleko jantokia zikin uztea, erabili ondoan.
- 17.–Kasurik ez egitea instalazioko langileek egiten dituzten oharrei, erabilera dela-eta (begiraleek, sorosleek, udal langileek eta, oro har, mantentze lanetakoek egiten dituztenei).
- 18.–Instalazioko edozein arau ez betetzea, ez denean arau-hauste astuna edo oso astuna.

14. artikulua. Arau-hauste astunak.

–Hona hemen arau-hauste astunak:

- 1.–Txartelaren titularra ez denak hura erabiltzea, salbu salaketa baldin badago hura galtzeagatik edo norbaitek ebasteagatik. Txartelaren titularra izanen da falta honen erantzulea.
- 2.–Egun berean 2 falta arin egitea.
- 3.–Instalazioan animaliak sartzea, itsu-txakurrak izan ezik.
- 4.–Bainulariei traba egitea.
- 5.–Bandalismoan aritzea.
- 6.–Horditurik edo edozein drogaren eraginpean bainatzea.
- 7.–Beste edozein arau ez betetzea, eragiten ahal badio beste erabiltzaileen segurtasunari edo arau-hauslearen beraren segurtasunari, bereziki honako hauek gaizki erabiltzaileari dagokionez: igerilekuak, bainu turkiarrak, hidromasajea, terma, presioko dutxak, jacuzzia eta aldagelak.
- 8.–Kalte egitea instalazioko edozein higigarri edo higiezini.
- 9.–Instalazioaren barnean ordena publikoa asaldatzea dakarren edozer egitea edo ez-egitea.
- 10.–Irain egitea, destaina egitea edo errespetua galtzea erabiltzaileei, langile arduradunei eta instalazioetan lan egiten dutenei.
- 11.–Instalazioetan sartzea horditurik edo drogen eraginpean egoteko zantzu nabarmenekin.
- 12.–Eguneko erabileraren ondotik armairua itxirik uztea.
15. artikulua. Arau-hauste oso astunak.
- 1.–Falta astunak errepikatzea.

2.–Instalazioaren barnean bizikidetzari, ordenari eta segurtasunari bereziki eragiten dioten falta astunak egitea.

3.–Faltsutzea instalaziora sartzeko txartelak edo giltzak.

4.–Instalazioko materiala edo besteen ondasunak lapurtzea edo ebastea.

5.–Beste edozein eraso, erabiltzaileen edo instalazioko langileen kontra, larritzat hartzen dena.

6.–Instalazioaren barnean drogak saldu edo kontsumitzea.

7.–Instalaziora sartzea edozein arma aldean eramanik.

8.–Sarbideen kontroletatik sartzea edo modu nabarian sartzen saiatzea abonatua izan gabe edo dagokion sarrera erosi gabe; edo sartzea edo sartzen saiatzea aurreikusitako sarbideak ez diren beste edozein lekutatik.

9.–Jendaurreko ordutegitik kanpo sartzea instalazioetara, bidea edozein dela ere.

Zehapenak

16. artikulua. Arau-haustek honela zehatuko dira:

Arau-haustek kalifikazioaren arabera zehatuko dira, kontuan hartuta ekintzen larritasuna, honako hauei dagokienez:

–Pertsonen segurtasuna, errespetua eta osasuna.

–Instalazioetan egindako kaltea.

–Indarrean dagoen araudia betetzea.

–Ekintzaren intenzionalitatea, errepikapena edo berrerortzea, eta arau-haustea astundu edo arindu dezaketen beste inguruabar batzuk.

Faltak, kalifikazioaren arabera, honela zehatuko dira:

–Arinek ekarriko dute ohartaraztea edo kirol instalazioetara sartu ezina, erabiltzeko eta gozatzeko, egun batetik 20 egunera bitarte.

–Astunek ekarriko dute ohartaraztea eta kirol instalazioetara sartu ezina, erabiltzeko eta gozatzeko, 30 egunetik 180 egunera bitarte.

–Falta oso astunek ekarriko dute abonatu edo erabiltzaile gisa dituen eskubide guztiak etetea, 180 egunetik 2 urtera bitartean, eta, kasu oso larrietan, kirol instalazioetatik behin betiko kanporatzea.

Abonatua izan gabe edo dagokion sarrera erosi gabe instalazioetan sartuz gero sarbideen kontroletatik, edo modu nabarian sartzen saiatuz gero, horrek berekin ekarriko du zehapen ekonomikoa, zehazki, 16 urtetik gorakoen eguneko sarreraren zenbatekoa halako hamar.

Abonatua izan gabe edo dagokion sarrera erosi gabe instalazioetan sartuz gero ezarritako sarbideak ez diren beste edozein lekutatik, edo jendearendako ordutegitik kanpo sartuz gero, horrek berekin ekarriko du 300,00 euroko zehapen ekonomikoa.

17. artikulua. Zehapenak aplikatzea:

Instalazioetako arduradunek (mantentze-lanetako langileak, sorosleak, sarbideen kontroletako langileak, zaintzaileak eta garbitzaileak) ofizioz jardun dezakete bete daitezen instalazioen funtzionamendu arauak: arau-hausleari hitzez jakinaraziz arau-haustearen gainean, ohartaraziz horrek dakartzan ondorio eta zehapenak, eta kautelazko zehapena ezarriz.

Zehapenak larritasun-mailaren arabera aplikatuko dira, honela:

–Kirol instalazioko langileek aplikatuko dituzte lehenik falta edo ez-betetze arinen zehapenak. Honako hauek egiten ahal dituzte:

- Arau-hauslea kautelaz zehatzea kirol instalazioetara sartzeko eta instalazio horiek erabiltzeko debekua ezarriz, gehienez ere 72 orduz, zehapenaren arrazoiaren berri emanez eta gertaeren berri emanez Kirol Zerbitzuari, eta hark baloratuko du beharrezkoa den 17. artikuluari heltzea.
- Arau-hauslea adingabea bada, kirol instalazioen arduradunak baloratuko du ea aplikatzen dituen zehapen murriztaileak, kirol instalazioetara sartzeko eta instalazio horiek erabiltzeko debekua, edo pedagogikoak diren beste neurri batzuk. Bigarren kasuan, arau-haustea salatu duen instalazioko langilea izanen da arduraduna jarraipena egiteko ea zehapena betetzen den.

–Kirol Zerbitzuko arduradunak aplikatuko ditu falta edo ez-betetze astunen zehapenak, eta honako hauek ezartzen ahalko ditu:

- Arau-hauslea kautelaz zigortzea kirol instalazioetara sartzeko debekuarekin eta instalazio horiek erabiltzeko debekuarekin, zehapen-espedientea izapidetzen ari den bitartean (30 egun, gehienez ere), eta arau-hausleari jakinaraztea zigorraren arrazoiak eta izapideak.
- Diziplinazko espedientea irekitzea.

–Falta edo ez-betetze oso astunen zehapenak Antsoaingo Udalak aplikatuko ditu, eta honako hauek ezartzen ahalko ditu:

- Arau-hauslea kautelaz zigortzea kirol instalazioetara sartzeko debekuarekin eta instalazio horiek erabiltzeko debekuarekin, zehapen-espedientea izapidetzen ari den bitartean (30 egun, gehienez ere), eta arau-hausleari jakinaraztea zigorraren arrazoiak eta izapideak.
- Diziplinazko espedientea irekitzea.
- Neurri eta prozedura judizialak jartzea.

18. artikulua. Falten azkentzea eta preskripzioa:

1.–Faltek sortzen duten erantzukizuna honako kasu hauetan azkentzen da:

a) Zehapena betetzeagatik.

- b) Faltek preskribatzeagatik.
- c) Zehapenek preskribatzeagatik.
- d) Arau-hauslearen heriotzagatik.
- e) Zehapena kentzeagatik, dagokion errekurtsua jarri ondoren.

2.–Faltek preskribatzea.

Falta arinek bi hilabeteren buruan preskribatuko dute, astunek lau hilabeteren buruan, eta oso astunek egin direnetik urtebeteren buruan.

Preskripzioa eten eginen da zehapen-espeditentea hastea erabakitzen denetik, eta preskripzioepea berriz zenbatuko da baldin espeditentea geldirik badago bi hilabetez baino gehiagoz.

19. artikulua. Prozedura:

–Arau-hauste arin edo astun bat egin dela jakiten denean, kirol instalazioen arduradunak espeditentea ebatziko du, entzunaldia eman ondoren interesdunari edo, adingabea bada, haren legezko tutoreari.

–Egindako arau-haustea falta oso astuntzat jo daitekeenean, Antsoaingo Udalak espeditentea hastea erabakiko du, gertakariak argitzeko eta erantzukizunak zurrizteko. Horretarako, instruktorea eta idazkaria izendatuko ditu, eta interesdunari helaraziko dizkio egotzitako egitateak eta egindako izendapenak, eta entzunaldia emanen dio.

Instrukzioa bukatutakoan, Antsoaingo Udalak dagokion erabakia hartuko du, espeditentetik ondorioztatzen denaren arabera. Erabaki hori interesdunari jakinarazi beharko zaio idatziz.

–Ezarritako zehapena betetzen hasiko da, zehapena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera.

–Kontuan hartuz egindako faltaren izaera, inguruabarrak eta aurreikus daitekeen kalifikazioa eta zehapena, alkateak bere irizpidez xedatzen ahalko du espeditentaturiko abonatuari edo erabiltzaileari debekatzea instalazioetan sartzeari eta horiek erabili eta gozatzea, edo etetea abonatu gisa dituen eskubide guztiak, espeditentea izapidetzen ari den bitartean; nolana ere, eta gehienez ere bi hilabetez, denbora hori kontuan hartuko da, ezartzen den zehapena betetzerakoan, hala badagokio.

–Antsoaingo Udalak edo hark eskuordetutako pertsonak ezarritako zehapen guztien aurka, berraztertze errekurtsua aurkezten ahalko zaio Udalari, hamar egun naturaleko epean; falta astun eta oso astunengatik ezarritako zehapenak badira eta alde zuzeneko eta nahitaezko berraztertze errekurtsua ezetsi bada, gora jotzeko errekurtsua jartzen ahalko da Udaleko osoko bilkurari zuzendurik, ohiko nahiz ezohiko hurrengo bileran, eta gora jotzeko errekurtsua aurkeztu beharko da 30 eguneko epean, berraztertze errekurtsuaren ezestearen jakinarazpena egiten denetik aurrera kontatzen hasita.

TARIFEN ERANSKINA

Kirol instalazioak: uda-neguetako igerilekuak, gune hidrotermala eta instalazio osagarriak.

I. epigrafea.–Denbora mugarik gabe izena ematen duten erabiltzaileen tarifak.

A eta B apartatu hauetako kuotak ordainduko dituzte:

–A apartatua.

A.1. Banakako izen-emate kuotak:

- 5 urtetik 15era bitartekoak: 60 euro.
- 16 urtetik gorakoak: 90 euro.
- 65 urtetik gorakoak, baldin eta betetzen badituzte ordenantza honetako tarifen aplikazio arauen 8. apartatuko baldintzak: 60 euro.

A.2. Izen-emate kuota murriztuak (familia-unitateko 3. kideetik aurrera; 26 urtetik beherakoendako, betiere):

- 5 urtetik 15era bitartekoak:
 - 3. kidea: 40,00 euro.
 - 4. kidea: 27,00 euro.
 - 5. kidea eta hurrengoak: 14,00 euro.
- 16 urtetik gorakoak:
 - 3. kidea: 59,00 euro.
 - 4. kidea: 40,00 euro.
 - 5. kidea eta hurrengoak: 21,00 euro.

–B apartatua.

B.1. Hileko kuotak, igerilekua eta gune hidrotermala erabiltzeko (banakakoak):

- 5 urtetik 15era bitartekoak: 12 euro.
- 16 urtetik gorakoak: 22 euro.
- 65 urtetik gorakoak, baldin eta betetzen badituzte ordenantza honetako tarifen aplikazio arauen 8. apartatuko baldintzak: 14,40 euro.

B.2. Hileko kuota murriztuak, igerilekua eta gune hidrotermala erabiltzeko (familia-unitateko 3. kideetik aurrera; 26 urtetik beherakoendako, betiere):

- 5 urtetik 15era bitartekoak:
 - 3. kidea: 9,20 euro.
 - 4. kidea: 6,5 euro.
 - 5. kidea eta hurrengoak: 3,60 euro.
- 16 urtetik gorakoak:
 - 3. kidea: 16,90 euro.
 - 4. kidea: 11,50 euro.
 - 5. kidea eta hurrengoak: 6,10 euro.

II. epigrafea.–Denboraldiko abonauak.

–5 urtetik 15era bitartekoak:

- Udako denboraldia: 95,00 euro.

–16 urtetik gorakoak:

- Udako denboraldia: 150,00 euro.

–65 urtetik gorakoak, baldin eta betetzen badituzte ordenantza honetako tarifen aplikazio arauen 8. apartatuko baldintzak:

- Udako denboraldia: 78,00 euro.

III. epigrafea.–Hilabeteko abonua, hilabete naturala. (Salbu ekaina, uztaila eta abuztua).

–5 urtetik 15era bitartekoak: 32,50 euro.

–16 urtetik gorakoak: 48,70 euro.

IV. epigrafea.–Eguneko sarrerak.

–5 urtetik 15era bitartekoak: 9,50 euro.

–16 urtetik gorakoak: 13,50 euro.

V. epigrafea.–Sarrera bonuak.

–5 urtetik 15era bitartekoak:

- Zenbait saiotarako bonuen zenbatekoa hau da:
 - Bost sarrerako bonua, hiru hilabeteen agortu beharrekoa: 38,00 euro.
 - Hamar sarrerako bonua, sei hilabeteen agortu beharrekoa: 50,00 euro.

–16 urtetik gorakoak:

- Bost sarrerako bonua, hiru hilabeteen agortu beharrekoa: 47,25 euro.
- Hamar sarrerako bonua, sei hilabeteen agortu beharrekoa: 87,75 euro.

VI. epigrafea.–Bestelako zerbitzuak.

–"Gim" abonua ("Ura" abonua + gimnasioa), hilean:

- "Ura" abonuari dagokiona, kategoriaren arabera, gehi 8,5 euro hilean.

–"Kirol" abonua ("Ura" abonua + kirol abonua), hilean:

- "Ura" abonuari dagokiona, kategoriaren arabera, gehi 18 euro hilean.

–"Idaki" abonua ("Ura" abonua + gimnasioa + kirol abonua), hilean:

- "Ura" abonuari dagokiona, kategoriaren arabera, gehi 23 euro hilean.

–"Gazte" abonua –16tik 20 urtera bitarte– ("Ura" abonua + kirol abonua), hilean:

- "Ura" abonuari dagokiona, kategoriaren arabera, gehi 9,5 euro hilean.

–Kirol abonua abonatuak ez direnendako:

- Antsoainen erroldaturikoak: 35 euro hilean.

- Antsoainen erroldatu gabeak: 42 euro hilean.

Oharrak:

1. Gimnasioan alta eskatzeko, aldez aurreko baldintza da denbora mugarik gabeko abonua izatea kirol instalazioetan.
2. Kuota sortuko da hilabete natural bakoitzeko lehen egunean. Alta hilabete naturala hasirik eskatzen bada, ordainduko da hilabetea bukatzeko falta den egunen artean hainbanaturik.
3. Bajak ondorioak izanen ditu gertatu eta hurrengo hilabete naturaletik aurrera, eta aurrez aurre (idatziz) edo modu telematikoa eskatu beharko da (sinadura digitalaren bidez), hilaren 25era arte, egun hori barne.
4. Kirol plus abonua, Idaki abonua eta Gazte abonua izeneko programek uztailean ez dituzte izanen kirol abonuko jarduera bideratuak.

–Txartelak egitea edo berriz egitea galdu edo hondatu direlako: 7,60 euro, salbu eta egin behar diren txartelak 5 urte baino zaharragoak badira; orduan doakoa izanen da.

VII. epigrafea.–Antsoaingo bizilagunek kirol espazioak erabiltzea.

1. Pilotalekua:

–Pilotalekua erabiltzea pilota partidetarako:

- a) Argi guztiarekin: 14 euro orduko.
- b) Oinarrizko argiarekin: 10,10 euro orduko.
- c) Argirik gabe: 7,40 euro orduko.

–Pilotalekua bestelako kirol erabileretarako:

- a) Argi guztiarekin: 43,70 euro orduko.
- b) Oinarrizko argiarekin: 38,40 euro orduko.
- c) Argirik gabe: 27,40 euro orduko.

2. Kiroldegia:

- a) Argiarekin: 43,70 euro orduko.
- b) Argirik gabe: 27,40 euro orduko.

3. Futbol zelaia:

129,70 euro partida bakoitzeko, argirik gabe.

174,30 euro partida bakoitzeko, argiarekin.

4. Igerileku estalia:

–Kalea, orduko: 40,00 euro.

5. Armairua alokatzea:

IDAKI kirol zentroko aldageletako armairua. 9 euro hiruhilekoan.

6. Jarduera gela:

150 euro orduko.

7. Rokodromoa:

–Prezioak:

a) Abonatuen saioa: 3 euro.

Abonatu gabeen saioa: 5 euro.

b) 10 saioko bonua, abonatuendako: 25 euro.

10 saioko bonua, abonatu gabeendako: 40 euro.

c) Denboraldia, 16 urtetik gorako abonatuendako (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra): 50 euro.

Denboraldia, 5-15 urte bitarteko abonatuendako (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra): 25 euro.

Denboraldia, 16 urtetik gorako abonatu gabeendako (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra): 75 euro.

Denboraldia, 5-15 urte bitarteko abonatu gabeendako (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra): 37,5 euro.

d) Denboraldi erdia, 16 urtetik gorako abonatuendako (abuztuaren 1etik abenduaren 31ra): 25 euro.

Denboraldi erdia, 5-15 urte bitarteko abonatuendako (abuztuaren 1etik abenduaren 31ra): 12,5 euro.

Denboraldi erdia, 16 urtetik gorako abonatu gabeendako (abuztuaren 1etik abenduaren 31ra): 37,5 euro.

Denboraldi erdia, 5-15 urte bitarteko abonatu gabeendako (abuztuaren 1etik abenduaren 31ra): 18,70 euro.

Oharra: Rokodromoa erabiltzeko, ezinbestekoa da indarrean dagoen urteko mendiko federazio-txartela izatea.

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1. Erabiltzaile bakoitzak dagozkion kuotak ordainduko ditu araei jarraikiz.

2. Izen-emate kuotak behin bakarrik ordainduko dira, instalazioetan alta ematean, eta lehen ordainagiriarekin batera igorriko dira.

3. Denbora mugarik gabe izena ematen bada, kuotaren arabera dagokion hasierako kidetze-saria ordaindu beharko da, edo, bestela, gutxienez 12 hilabete egon beharko da abonatu gisa, hasierako kidetze-saria ordaindu gabe. Baja eskatzen bada gutxieneko iraunaldia bete baino lehen, Udalak behar den izen-emate kuota kobratuko du, eta baja izapidetuko du.

4. Kirol instalazioak erabiltzeko kuotak hileroko ordainduko dira. Alta hilabete naturala hasirik eskatzen bada, ordainduko da hilabetea bukatzeko falta den egunen artean hainbanaturik.

Tarifetan ageri diren adin tarte bakoitzeko kuotak hainbanaturik ordaintzen hasiko dira hilabete naturala bukatzeko falta diren egunen arabera.

5. Abonatuak edozein aldaketa izapidetu nahi badu bere abonuari dagokionez, edo instalazioen erabileratik baja eskatu nahi badu, aurrez aurre (idatziz) edo telematikoki jakinarazi beharko du (sinadura digitalaren bidez), hilaren 25era arte, egun hori barne. Bajak, noiz egiten diren, ondoko hilabetearen izanen dira indarrean.

6. Betiere nahitaezko betebeharra izanen da banku batean helbideratzea, behar diren kuotak kobratzeko.

7. Kuota murriztuak izateko baldintzak:

–Kuota murriztuak 26 urtetik beherakoei aplikatuko zaizkie, bi baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Familiako 2 kide igerilekuko denbora mugarik gabeko abonatu izatea, banakako kuotak ordaintzen dituztenak murrizketarik gabe.

b) Familia-unitateko kide horiek izatea aita, ama, legezko tutoreak edo 26 urtetik beherako anai-arrebak, eta bere guraso edo legezko tutoreetako batekin bederen bizitzea.

–26 urteko edo hortik gorako anai-arrebek ez dute murrizketarako eskubiderik sortzen, eta ez dute kuota murrizturako eskubiderik.

–Udalak noiznahi egiaztatzen ahal ditu murrizketarako eskubidea ematen duten familia-egoerak, eta, betiere, hilabetero berrikusi beharko dira.

–Izena emanik, edo hileroko ordainagiria eginik, kontuan hartu ziren familiaren inguruabarrak aldatzen badira, horiek ez dute ondoriorik izanen hurrengo hilabetera arte.

8. 65 urtetik gorakoek, gizarte sektore horretarako ezarritako kuotak izan nahi badituzte, frogatu beharko dute haien diru-sarrerek ez dutela gainditzen lanbide arteko gutxieneko soldata, kontuan hartuz familia-unitatearen per capita errenta.

9. Eszedentziak: etenik geldituko da bai hileroko kuotaren kobrantza bai kirol instalazioetako sarrera, nahitaezko lekualdatze bat gertatzen delarik, gutxienez ere sei hilabete irauten duena, lana edo irakaskuntza arautuak direla eta. Egoera horiek frogatzeko, erakutsi beharko da egoki den lan-kontratua, enpresaren agiria edo ikastetxeko matrikula ofiziala. Eszedentzia-eskaera hilaren 25a baino lehen eskatu behar da, eta hurrengo hilabetetik aurrera izanen ditu ondorioak.

10. 5 urtetik beherako bat denbora mugarik gabe abonatzeko kirol instalazioetan, beharrezkoa izanen da haren ama, aita edo legezko tutorea denbora mugarik gabeko abonatu izatea.

Iragarkiaren kodea: L2407601